



Jules Verne-aren
Hogei mila legoa
itsaspetik
irakurtzeko
ariketak

Koaderno honen asmoa ikasleei *Hogei mila legoa itsaspetik* eleberria irakurtzea erraztea da.

Horretarako, hasieran eta amaieran era orokorreko galderak dituzten fitxak daude; lanari, aldiari edo egileari buruzkoak dira, hain zuzen ere.

Gainerako fitxetan, liburuko kapitulu bakoitzaren edukiarekin lotuta dauden berariazko ariketak ageri dira. Ulermena, analisia eta adierazpena lantzen dira, batez ere, fitxa horietan.

IRAKURRI BAINO LEHEN: GALDERA OROKORRAK

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

Begiratu nolakoa den liburua kanpotik, eta erantzun.

1 Nolakoa da azala? Deskribatu irudia.

2 Zer izenburu du eleberriak? Zer iradokitzen dizu izenburu horrek?

3 Zeri buruz hitz egiten du atzeko azalak? Interesgarri deritzozu proposatzen duen historiari?

IRAKURRI BAINO LEHEN: GALDERA OROKORRAK

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

Irakurri eleberriaren sarrera, eta erantzun.

- 1** Zer esan nahi du Nemo hitzak latinez? Izen egokia dela uste al duzu mundutik bakartuta bizi den pertsonaia batentzat? Azaldu erantzuna.

- 2** Gustatzen al zaizkizu zientzia-fikziozko kontakizunak? Gustatzen baldin bazaizkizu, azaldu zergatik, eta gustatzen baldin ez bazaizkizu, esan zergatik ez zaizkizun gustatzen.

- 3** Eleberri hau itsasoan garatzen da. Azaldu zer iradokitzen dizun itsasoak, eta nolako sentazioak izaten dituzun itsasoaren aurrean. Laguntza: oporrak, lana, arrantza, kirola, arriskua, uda...

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Idatzi kapitulu honetan aipatzen diren hiru itsasontzien izenak

2 Jo *narbal* hitzaren esanahiaren bila, eta azaldu zer esangura duen. Interneten edo entziklopedietan begiratu dezakezu.

3 Kapitulu honen amaieran, Aronnax irakasleak gonbita hartu zuen. Idatz ezazu ezagutzen dituzun tokietatik zirrarak handiena egin dizuna ikusteko pertsonaia horri egingo zeniokeen gonbita. Museo, parke tematiko, akuario, zoolo- giko edo era horretako tokiren baterako gonbita izan daiteke.

IRAKURRI AHALA: II. KAPITULUA

Jaunak nahi duen bezala

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nor zen Conseil? Zein ziren horren izateko moduaren ezaugarriak nabarmenak?

2 Zergatik hitz egiten zion Conseilek bere jaunari hirugarren pertsonan?

3 Aronnax irakasleak eta horren zerbitzaria zen Conseilek bidaldi luzea egin behar zuten, eta, ondorioz, zerbitzariak ekipajea egiteko agindua hartu zuen. Zeuk egin beharko bazenu, zer sartuko zenuke motxilan? Idatzi itsasoan zeharko bidaiak luze batean beharko zenituzkeen gauzen zerrenda.

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Aurrera!

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer izen zuen Aronnax jaunak hartu behar izan zuen fragatak? Zer izen zuen komandanteak?

2 Kapitulu honetan, oso ezaguna ez den zetazeoa ageri da: *narbala*. Arruntagoak dira balea, kaxalotea edo izurdea. Pertsona bati buruz *balea*, *kaxalotea* edo *izurdea* dela esanez gero, zer ezaugarri nabarmendu nahi ditugu? Aukeratu erantzunik egokienak honako hauen artean:

– Gorputz handikoa dela. _____

– Dorpea, handia eta jatorra dela. _____

– Adimentsua eta atsegina dela. _____

3 Sailkatu honako animalia hauek, kontuan hartuta **zetazeoak**, hau da ugaztun mota batekoak, ala **arrainak** diren: *balea*, *merlenka*, *sardina*, *kaxalotea*, *barbarina*, *izurdea*, *bisigua* eta *orka*. Behar baduzu, jo informazio bila Internetera edo entziklopedia edo bestelako libururen batera.

Zetazeoak

Arrainak

_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA

Espezie ezezaguneko balea

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nola defendatu zen munstroa, fragatak eraso zionean?

2 Konturatuko zinen eleberriaren zati handia pertsonaien arteko solasaldiek osatzen dutela; literatura-testuetan, elkarrizketa esaten zaie. Zer ortografia-zeinuren bidez adierazten da pertsonaia bakoitzak parte hartzen duela?

3 Idatzi ezagutzen dituzun era guztietako ontzien izenak. Bat ere ezagutzen edo gogoratzen ez baduzu, irakurri berriz eleberri honetako lehenengo lau kapituluak; hainbat eratako ontziak ageri dira.

IRAKURRI AHALA: V. KAPITULUA

Mobilis in mobili

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nolakoa zen itsasontziko komandantea zela ematen zuen gizona?

2 Zenbat hizkuntzatan kontatu zieten itsasoan galduak komandanteari gertatu zitzaiena?

3 Itsasoan galduta eta erdi murgilduta zeudela, Conseilek lasaitasun eta prestutasun handiz erantzun zion Aronnax jaunari.

Zer formula erabili zuen? _____

Ondoan ageri direnen artean, aukeratu arruntagoak diren beste formula batzuk:

– Esadazu, jauna.

– Zer nahi duzu, jauna?

– Zer behar duzu, jauna?

– Zer egin dezaket zure alde, jauna?

4 Kapitulu honetan, hainbat hizkuntza aipatzen dira. Zenbat dakizkizu? Zergatik da hain garrantzi handikoa hizkuntza bat baino gehiago jakitea? Azaldu erantzuna.

IRAKURRI AHALA: VI. KAPITULUA

Uretako gizona

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer hizkuntza erabili zuen komandanteak itsasoan galdutakoekin hitz egiteko?

2 Nemo kapitainak dakizkien hizkuntzen artean, gaur egun erabiltzen ez dena dago, hau da hizkuntza hila da. Zein da?

3 Ontziko komandanteak, Nemo kapitainak, *independentea* dela zehaztu zuen. Idatzi kontrako esanahia duen hitz bat. Nola esaten zaie kontrako esanahia duten hitzei? Idatzi beste bi adibide.

4 Kapitulu honen izenburua *Uretako gizona* da. Idatzi zergatik duen izenburu hori. Zentzuzko iritzia izan behar du, jakina.

IRAKURRI AHALA: VII. KAPITULUA

Nautilus

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nolako tratua eman zion Nemo kapitainak Aronnax jaunari?

2 Zer animaliatatik zetozen *Nautilusen* idazteko erabiltzen zituzten lumak eta tinta?

3 *Nautilusen* oso baxera ederra zuten jateko, eta, ondo dakizunez, *baxera* izen kolektiboa da. Esan zein diren kolektiboak honako zerrenda honetan: *armada, abesbatza, baso, turuta, koru, janari* eta *zuhaixka*.

4 Nemo kapitainak hainbat makina eta aparatu erabiltzen zituen bizitzeko eta itsasoan zehar nabigatzeko. Idatzi egunero erabiltzen dituzun lau aparatu, gutxienez.

IRAKURRI AHALA: VIII. KAPITULUA

Guztia elektrizitateari esker

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer uste atera zuen Aronnax jaunak *Nautilus* osoan ikusi eta gero?

2 Non eta noiz hasi zen irakasleak eta horren lagunek, Nemo kapitainarekin batera, itsaspeak arakatzeko egin zuten bidaldia?

3 Nemo kapitaina berari komeni zitzaionean itzultzen zen *Nautilus*era. Behean ageri diren esamoldeak itsasoaren eta itsasontzien mundutik datoz. Adierazi zer esangura ematen diegun eguneroko erabileran.

<i>ontziratu</i>	<i>'begira egon'</i>
<i>haize kontra</i>	<i>'hondoratzea, hondatzea'</i>
<i>haizea nora bera hara</i>	<i>'eragozpen guztiak gorabehera'</i>
<i>hondoa jo</i>	<i>'zeregin interesgarria adorez hasi'</i>

4 Elektrizitatea *Nautilus*ek ia denerako erabiltzen zuen energia da. Gaur egun ere gauza askotarako erabiltzen dugu; horregatik, erraz egingo zaizu etxeko bost aparaturen eta etxe barrukoak ez diren hiru aparaturen izenak ematea.

IRAKURRI AHALA: IX. KAPITULUA

Gonbidapen-gutuna

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer ibilalditara gonbidatu zuen Nemo kapitainak Aronnax jauna?

2 Zer da Cresporen uhartea? Zergatik esaten zaio horrela?

3 Azaldu zer esan nahi duten, zehatz, *uharte*, *uhartetxo* eta *uhartedi* hitzek.

4 Crespo kapitaina zarela joko dugu; deskribatu nolakoa den aurkitu duzun uhar-tetxoa.

IRAKURRI AHALA: X. KAPITULUA
Lau mila legoa ozeano barearen azpitik

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nola ematen zuten denbora *Nautilus*ko hiru gonbidatuek, murgilduta zeudenean?

2 Zer egunetan pasatu ziren Hawaii uharteen ondotik? Zer egunetan ikusi zituzten Ginea Berriko kostak?

3 Zergatik ez zituzten ulertzen irakasleak eta horren lagunek Nemo kapitainaren eta tripulaziokoek arteko hitzak? Erabil ezazu ezkutuko hizkuntza bat lagunekin komunikatzeko. Gure mezuetako kodeak ulertzea baino ez duzu, eta nahi duzunean erabili ahal izango dituzu kodeok.

Nimi iti biri tripiliziik hizkintzi hiri irirbiltzin zitin.

Tinetimo tietita tibetire titritiputilatizitiotiak tihutira tietiratibiltitzen tizutiten.

4 *Nautilus*ko bidazteiek atsegin handia hartzen zuten itsasoaren hondoak ikusiaz. Zer da gehien gustatzen zaizuna egitea?

IRAKURRI AHALA: XI. KAPITULUA

Gueboroar uhartea

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer uhartetara joan ziren Aronnax jauna, Conseil eta Ned Land?

2 Idatzi kapitulu honetan aipatzen diren animalien izenak.

3 Seguru antzean, heldua izango zen gure protagonistek harrapatu zuten basurdea. Kumea izan balitz, basurdekumea zela esango genuen. Lotu honako animalia hauen eta horien kumeen izenak:

oilo

txahal

ardi

hartz-kume

behi

otsokume

oso

untxikume

untxi

bildots

otso

oilasko

4 Deskribatu nolakoa den zure maskota: zer animalia mota den, zer izen ipini diozun, nolako gorpuzkera duen, nola portatzen den. Maskotarik baldin ez baduzu, azaldu zer animalia izatea gustatuko litzaizukeen, eta zergatik.

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Indiako ozeanoko zer golkotan biltzen ziren perlen bilatzaileak? Zer hiletan?

2 Zer osasun-arazo sortzen zituen perlen bilatzaileen lanbideak?

3 Poetek, hortzagin zuriak aipatzeko, «zure ahoko *perlak*» adierazpena erabiltzen dute sarri. Ezpainen zer ezaugarri goratzen dute, bi *errubi* (kolore gorri biziko harri bitxia) direla esanez gero? *Begien* zer ezaugarri goratzen dute bi *izar distiratsu* direla esanez gero? Eta *ilea eguzki izpiekin* konparatzen baldin bada?

4 Konturatuko zinenez, Conseil pertsona trankila, barea eta oso izaera baketsukoa zen; Ned Land, aldiz, izaera bizikoa, pazientzia gutxikoa eta odolberoa zen. Izaera horietako zein gustatzen zaizu gehien? Zeinekin konponduko zinateke ondoen? Azaldu erantzuna.

IRAKURRI AHALA: II. KAPITULUA

Hamar milioiko perla

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Adierazi egia ala gezurra diren honako baieztapen hauek:

- Nemo kapitaina, Aronnax jauna, Conseil eta Ned Land itsas hondora jaitsi ziren urpekarien eran jantzita.
- Perlen bilatzaileak ere urpekarien jantzia zeraman.
- Haitzuloko perla-ostrak zuen perla handia zen, intxaurraren tamainakoa.
- Marrazoak eraso egin zion Aronnax irakasleari.
- Indigenak heriotzatik salbatu zuen Nemo kapitaina.

2 Nemo kapitainaren indigena tratatzeko moduaren bi irudi finkatu ziren irakaslearen buruan. Zein ziren bi irudi horiek?

3 Idatzi *arrain* hitzarekin familiako hiru berba.

4 Perlen bilatzaileek arriskuan jartzen zuten bizia, bizimodua ateratzeko. Idatzi arriskutsu deritezun hiru lanbideren izenak, eta azaldu zergatik diren arriskutsuak.

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Itsaso gorria

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Bi arrazoi ematen dira Itsaso Gorriari horrela esateko. Zein dira?

2 Zer itsaso komunikatzen ditu kapitainak aurkitu zuen tunelak? Markatu erantzun zuzena:

- Itsaso Gorria eta Indiako ozeanoa.
- Itsaso Beltza eta Itsaso Gorria.
- Mediterraneo itsasoa eta Kantauri itsasoa.
- Itsaso Gorria eta Mediterranea.

3 Kapitulu honetan, Bab el-Mandeb itsasartearen izenaren arabierazko esanahia azaltzen da: 'negar-malkoen atea'. Gaztelanian ere arabiar jatorriko hitz asko daude. Bilatu honako toponimo edo izen geografiko hauen esanahia:

- Alcántara
- Almadén de la Plata
- Medina del Campo
- Guadalquivir
- Guadalupe
- Kordoba

Beharrezkoa baldin bada, bilatu Interneten edo era horretako informazioa dakarren libururen batean.

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA

Itsaspeko tunela

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Itsasuskia zer izaki zela uste izan zuen Conseilek?

2 Idatzi kapitulu honetan aipatzen diren animalien izenak.

3 Idatzi *goi-* eta *gain-* aurrizkiz hasten diren hiruna hitz, gutxienez. Gero, adierazi hitz horien esanahia.

4 Conseilek animalia bat, itsasuskia, sirena batekin nahasi zuen. Nolakoak ziren irudimenezko izaki haiek? Nolakoak ziren zentauroak?

Deskribatu Nemo kapitainak ozeanoetan zehar aurki zezakeen izaki fantastikoren bat. Jakina, sirenak ez du balio.

IRAKURRI AHALA: V. KAPITULUA
Mediterranea berrogeita zortzi orduan

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Gauza asko gertatzen dira kapitulu honetan. Esan egia ala gezurra den esaten duguna.

- *Nautilus* zubi batetik igaro zen Itsaso Gorritik Mediterraneora.
- Conseilek ez zuen parte hartu Ned Landen planetan.
- Nemo kapitainak urrezko lingotez beteriko kutxa bat opatu zion itsaspekari bati.
- *Nautilusen* barruko beroa jasanezina zen ia.
- Udan zeudenez, oso bero egiten zuen.
- Mediterranea, Vernerren hitzetan, munduko itsasorik urdinena da.
- Mediterraneoan, urraburuak, arraiak, gaizkatak, hegalaburrak, kaxaloteak eta izokinak daude.

2 Nemo kapitainak urrezko lingotez beteriko kutxa itsaspekari misteriotsu bati eman zion. Nor ote zen gizon hori? Imajina ezazu, eta azaldu, idatziz, nor zen.

IRAKURRI AHALA: VI. KAPITULUA

Vigoko itsasadarra

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nolako ibaiak itsasoratzen dira Atlantikoan? Zein dira ibai horiek?

2 Nondik zetozen Vigon hondoa jo zuten galeoiak? Zer zekarten?

3 Kapitulu honetan, *Nautilusen* nabigazioan oso erabilgarriak ziren bi tresna aipatzen dira: *iparrorratza* eta *manometroa*. Zertarako balio du bakoitzak? Behar izanez gero, bilatu hitz horien esanahia hiztegian. Idatzi *-metro* atzizkiz bukatzen diren beste bi; horietako bat tenperatura neurtzeko da, eta bestea, atmosferaren presioa neurtzeko.

4 Bilatu entziklopediaren batean edo Interneten zer zen Atlantida; idatzi informazio horren laburpena.

IRAKURRI AHALA: VIII. KAPITULUA

Hego poloa

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nola lortu zuten Hego polora heltzea espedizio-taldekoek?

2 Zer erreakzio izan zuten bidaztiak izozmendien aurrean?

3 Jules Vernek izotz-blokeen forma geometrikoak eta apetatsuak Ekialdeko hiriekin eta bertako eraikinekin konparatu zituen. Lotu zutabeetako bat tenplu mote-kin, eta bestea, erlijio horretakoekin.

meskita

budismoa

sinagoga

kristautasuna

pagoda

islama

katedrala

judaismoa

4 Ipar edo Hego poloan bizi zarela joko dugu. Halako eskualdeetan, sei hilabeteko egunak eta sei hilabeteko gauak daude. Zure ustez, nola antola daiteke lana, astialdia, eta, orokorrean, bizimodua? Azaldu erantzuna.

IRAKURRI AHALA: IX. KAPITULUA

Olagarroak

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nork askatu zuen Ned Land olagarro izugarriarengandik? Zergatik?

2 Kapitulu honetan, Conseilen izaera bare eta ia patxada handiegikoa ageri da. Nola ageri da baretasun hori? Azaldu erantzuna.

3 Olagarroak eta txibiak *zefalopodo* deritzegun animalien klase batekoak dira. Horregatik esaten zaie, grekoz, *kefale* 'burua' eta *podas* 'oina' direlako. Baldin ez badakizu, bilatu zer esan nahi duen *gasteropodo* hitzak, eta eman halakoa den animalia baten izena.

4 Batzuetan, kondaira hutsa izaten da itsasoan, ibaietan edo aintziretan animalia erraldoiak izatea. Ezagutzen al duzu halakorik? Ezagutzen baldin ez baduzu, asmatu.

IRAKURRI AHALA: X. KAPITULUA

Golkoko itsaslasterra

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer nahi zuen Ned Landek? Nola ikusi zuen hori Aronnax irakasleak?

2 Nolakoa izan zen kapitainaren erantzuna, antzina itsasoan galduta zeudenen itsaspekotik joateko proposamenaren aurrean?

3 Kapitulan, maitasuna eta gorrotoa aipatzen dira. Idatzi *maite* hitzetik eratorritako hiru hitz.

4 Nemo kapitainaren jarrera zorrotzaren ondorioz, gure lagunek itsaspekoan jarraitu behar izan zuten borondatez kontra. Bestalde, eleberriaren hasieran, itsasora erori zirenean, Nemok lagundu eta jaso baldin ez balitu, hilda egongo ziren. Zer iritzi duzu kapitainari buruz? Gizon zuhurra ala salbatzen dituenak esklabo bihurtzen dituen tiranoa al da? Azaldu erantzuna.

IRAKURRI AHALA: XI. KAPITULUA
MENDEKATZAILEA

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer zen *Mendekatzailea*?

2 Egia ezagutzen hasi gara... Zer sentimenduk eragin zuten Nemo kapitainaren portaera ankerra eta errukigabea?

3 *Mendekatzaile* eta *mendeku* hitzak familia berekoak dira. Zer esan nahi duten zehatz baldin ez badakizu, bilatu hiztegiren batean, eta, gero, kopiatu hemen esanahia.

4 Azaldu nolako sentimenduak izan dituzun Nemo kapitainaren eta beste ontziaren arteko borroka izugarriaren deskripzioa irakurri duzunean.

IRAKURRI AHALA: XII. KAPITULUA

Nemo kapitainaren azken hitzak

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer ordutan erabaki zuten ihes egingo zutela itsaspekotik irakasleak, Ned Landek eta Conseilek?

2 Deskribatu Aronnax irakasleak izan zituen sentimenduak, lehorrera eramango zituen txalupara iritsi baino lehen.

3 *Nautilus* «irentsi» zuen itsas fenomenoak ohiz kanpoko potentzia eta indarra zituen zurrumbiloa izan zen. Nola esaten zaio fenomeno horri, eta munduko zer tokitan gertatu zen?

4 Aurreko ariketan aipatu dugun fenomeno fisikoa adierazten duen hitza barbarismoa da. Idatzi gure hizkuntzan ohiz erabiltzen ditugun hamar barbarismo edo erdarakada.

IRAKURRI ETA GERO: GALDERA OROKOR GEHIAGO

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

Irakurri eranskina, eta erantzun:

1 Zergatik ospatu zen 2005. urtean Jules Verneren mendeurrena?

2 Zein izan ziren Verneren bizitzan zeharko zaletasunak, ia obsesioak?

3 Irakurri berri duzun eleberriko zer pertsonaiak ditu zaletasun horiek?

4 Idatzi idazle berorren zeruan, espazioan, lehorrean eta itsasoan garatzen den eleberri bana.

Ariketak eta soluzioak
Lourdes Íñiguez Barrena

Edizioa
Marga Fdez. Montijano
Talde teknikoa
Gema Melero